


**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
10n. ZENBAKIA**

**MAIATZA  
— 1978 —**



**AZKUE:**

- Lenengo euskaltzainburua.
- Eliztigillea.
- Iztegitigillea.
- Jakintza - billatzailea.
- Ereslaria.
- Antzerkitigillea.
- Edeslaria.
- Eleberrigillea.
- Izparlaria.

---

*Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaite.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO**  
**AURREZKI KUTXA**

*Geroa, bertan daukagu.*



# EUSKALTZAINDIA

**ZER DAN.**—Zenbaki onetan Onaindia'tar Santi Aitak Azkue'ri buruz idaz-lan sakon bat agertzen dau. Lekeitio'n gizon aundi oneri omenaldia egin jako. Iraillean Euskaltzaindiak euskera batuaren amar urteak dirala ta gai oneri buruz azterpena egingo dau. Orra or iru zio Euskaltzaindiari buruz zerbait esateko.

Euskerea bideratzeko ta indartzeko dan, euskal-jakitunen tadea edo alkarte ta Euskaltzaindia.

Ez da politikan alderdi bateko diranena, ez da erlejiñoz eritxi bardiñekoena, ez da euskereari buruz batera dagozenena; jakitunena eta euskera-arloan jakitun diranena da.

\* \* \*

**KONDAIRA.**—Aurten 60 urte beteten dira Oiñati'n Alkarte au sortu zala, Azkue Aundia tarteko eta buru zala sortu be.

Gero lenengo urteetan indarra artuez jarraitu eban, bazkide geiago artu zituan eta lan ederrak egin ebazan.

Guda-inguruan, eta ostein batez be, larri-une ikaragarria izan eban, España'tarren joko zapaltzaille ta maltzurra zala ta, baiña naikoa arin bideratu eta barrero indartu zan.

Orain amar urte asi eta gaur arte baste larriune bildurgarri baten dago, euskera batuaren arazoa dala ta, euskaltzain asko batzarretara be joaten ez dirala.

Oraintsu Madril'dik onartu dabe eta «Real Academia» izena artu-azo dautsoe, naizta «real» ori izenerako egokia izan ez: Ez Egoaldean eta gitxiago Iparraldean.

\* \* \*

**ELBURUAK.**—Eta zertarako da jakitun-talde ori? Zeintzuk bere elburuak?

Elburu orokor bat: Euskerea. Euskerearen barruan, beste «academia» baten antzera, «garbitu, egokitu, argitu» izan leiteke bere egitekoa.

Eta apur bat berezituaz, euskera bizia indartu, bere itzak, itz-osotzea, joskerea, idazkerea, abotsak... egokitu edo zeintzuk diran egokienak esan. Sartzen diran esakun, joskera ta itz-osotze egokiezak zuzendu. Euskera batua sortu ta azi daiten bide egokiak artu.

\* \* \*

**GAURKO EGITEAK.**—Orrez gaiñera, ba dagoz beste egite batzuk gaur Euskaltzaindiak egiten dituanak, baiña ez bereak diralako, beste iñork egiten ez ditualako edo gitxi egiten ditualako baiño.

Esaterako, abedetxe-ekiñaldiak (Alfabetatze-kanpainak) egitea edo irakasle-agiriak emotea, edo sariketarak eratzea... Olako ekiñaldiak ez dira Euskaltzaindiarenak, ikaste-etxe-enak eta euskal-erakunde berezienak baiño, eta Euskaltzaindiak orreik iztera eta beste batzui egin-azotera jokatu bear dau.

\* \* \*

**ZABALTASUNA.**—Alkarte onetan sartzeko ez leiteke beste baldintzarik bear, euskerearen gaietan jakituna izatea baiño.

Euskaltzaindian politika-alderdi guztietakoak, euskalki guztietan lan egiten dabenenak, erlejiño guztietakoak, bizibide guztietakoak... izan bear dabe sartzeko eskubidea. Baldintza bakarra, euskerearen gaietan jakitunena izan daitezela.

Eta zelan aukeratu euskaltzainak? Demokraziz? Ez dot uste. Jakitunak curak egin bearko dabe araudia eta araudi orren barruan, curak aukeratu arlo onetan lan egiteko egokienak diranak. Eta autarkiz. Baiña autarkiz egiten dan dana ez da demokrazia eta ez dauko zertan izan be.

\* \* \*

**AZTERPENA.**—Gizonen egiteak edo ez dira zuzenak edo, onenean be, zuzenagoak izan leitekez.

Orregaitik, Euskaltzaindiak bere burua aztertzeke gai izan bear dau eta orain arte artu dituan bideak zuzenak ala okerrak diran ondo aztertu, orretarako beste batzun eritxiak be kontuan artuta. Itsutu barik.

Laster egingo ei dau euskera batuari buruz azterpena. Olakoa izango ete da? Ala «konponketak egiteko berandu» dala ta, iñori entzun barik bere bidean jarraituko ete dau. Orrelan izatekotan, gaur daukan larrialdia, aundiagoa ta larriagoa egingo jako. Iraillak esango dau.

\* \* \*

**TXALOGARRIA.**—Euskaltzaindia euskaldunontzat txalogarria ta goragarria da, erakunde lez.

Bide zuzena aurkituaz eta jokera guztiak kontuan dituala, lortuko al ditu gaurko Euskaltzaindiak euskaldunen itzaltasuna ta maitetasuna.

## ETORKIZUNA NUN?



### ERRETENA

Gaztedia bizi-gurea, mardultasuna, gizontasuna... Gazte-aldia, baiezkortasuna, garra, gogo beroa, itxaropena eta abar... da.

Baiña dan orri erretetan eta bidea emon bear jako igali onak emon dagizan, gizontasuna cuki dagian.

\* \* \*

### GIZON-GAIK

Gizontasuna, batez be, nortasunak, zuzentasunak, askatusunak, goi-sinistek eta maitetasunak osotzen dabe.

Oraingo gure gazte askoren biotzetan nortasunaren ordez arrokeria sartu da; zuzentasunaren ordez norberekeria; askatusunaren ordez, askakeria; goi-sinismenaren ordez, sinisgabekeria eta

maitetasunaren lekuan, gorrotoa ta amurrua.

\* \* \*

### BIDE OKERRA

Bide orretatik jarraituaz, ezin benetako gizontasunik lortu.

Parra-parra zuzentasun itza agoan dabela, besteen zapaltzaille izaten dira; askatusunaren izencan, ezelango esi barik, nai daben guztia egiten dabe; goi-sinismen barik euren erlijio ta moral guztia ukatu ta nai dituen gorpuzkeri guztieri atea zabalduten dautse.

\* \* \*

### ALKAR ABERE

Maitetasunik ezcan, bata bestearentzat, abere biurtuten dira, latindarrak esaten eban lez «gizona gizonarentzat, otso».

Orrelean gure gazte askok benetako gizontasuna galdu dabe. Eta eurak dira gure etorkizuna.

Gazte batek oraintsu auxe idatzi dau, gaurko gazte askoren egoerea ta jokerea ikusiaz: «Au zer da, gaztedia ala saborreria?».

Ni, saborreria dala esaten ez naz ausartuko, oindiño bide txarretik doazen gazteak be gauza on batzuk euren biotzetan ba dituelako. Uste ta amesak aldean darabillez eta egun baten itsu-itsurik artu dituen bide txarrak azken onik ez daukela ikusirik, gizontasunera biurtuko dira.

\* \* \*

### BIDE ONERA

Neuri berberoni bat eta bi baiño gaste geiago urreratu jataz esanaz: «Begiak zabaldu dodaz, argi ikusi dot

ni niñoan bideak elburu onik ez daukala».

Orregaitik beti aieneka ta zotinka ibili barik, gazteak erriaren eta Elizaren etorkizuna dirala ikusirik, itxaropenez bete bear ditugu gure biotzak.

\* \* \*

### LAGUNDU

Lan ikaragarria banetan egin bearean daukaguna!

Errukitu gaztediagaz eta ez bera uxatu!

Gaztedia, buruzagi edo lider gaizto batzuen saio-solo dala ta buruzagi orrek ondo dakiela ezjakiña edo kultura gitxikoa dala eta aurrez euren larreetara eroaten dabela jakin bear da.

Gaztedi oneri eskua luzatu bear jako, ta bitartean, ume ta gaztetxuak ondo azi ta eziten alegindu, ondorengo gaztediak buruzagi lider aundiak izan dagiczan, geroko gazteai gizontasuna, benetakoa, emon dagien.

EDERRA DA GAZTEDIA  
EDER TA AUNDIA,  
BEGI-BIZI, BULAR-ZABAL  
GURI TA ARGIA.  
BIOTZ GORDIN MAITALLEA  
BAIETZEZ BETEA.  
EZIÑIK EZ IÑOZ BERE  
ALDAULA GUZTIA.  
ERRI DANA ZURE BILLA.  
EZ, EZ IZAN IÑOZ  
EPEL, ZITAL TA GOIBELA,  
USTEL TA EZ ILLA.  
ZURE BIOTZEAN DOZU  
GOGO INDARTSUA  
IZAN BAI ERRIARENTZAT  
ALAITASUN-SUA.

GALLASTEGI'tar Kauldi

## «D. Klaudio»ri omenaldia

Aprillaren 23'garren egunean, San Anton'go parrokian ainbeste urtetan txauburu izan dan D. Klaudio'ri omenaldia egingo dautsoe.

Zio asko aurkitu leitekez omenaldi au egiteko, baiña bat agiri da geien egun orretan eta Bilbo'ko euskaldunen izenean batez be: San Anton'en orain amasei urte asita gaur arte euskerazko mezea egitea.

Izan ditu arerioak jokabide orrek, alde guztietatik

izan be. Baiña D. Klaudio'k bide zuzenari jarraitu dautso ekaitz guztiak azpiratuz.

D. Klaudio'k, meza orregaz eta beste bere jokabide askogaz, euskaldun askoren fedea indartu dau. Omena ta esker ona zor jakoz.

Omenaldi orretara sartzen da ZER ba, eta aldizkari onetan idazle jator dogun D. Klaudio'ri, esker onezko besarkada bat. Euskaldun eta fededun, aurrera!

IDAZKOLA'koak



# GALDEGAIA III

## JOSKERA BEREZIA

Inguratzen gaituen izkuntzei begira bagakiez, euskerak oso joskera bestelako dauala argi dago. Ikusi:

<b>Gaztelera</b>	Andar bien.	Comprar casa.	Ir a Bilbao.	Escribir un libro.	Estar quieto.
Venir	del monte.	Ver al padre.	Comer pan.	Hacer chiquilladas.	
<b>Euskera</b>	Ondo ibilli.	Etxea erosi.	Bilbo'ra joan.	Liburu bat idatzi.	Geldi egon.
Menditik etorri.	Aita ikusi.	Ogia jan.	Umekeriak egin.		

Bestelakotasun au onetan datza: euskeraz galdegaia, aditza izan barik, esaldiaren beste berba bat izan oi da geienetan, eta itz orrek aditzaren aurre-aurrean joan bear dau orrexegaitik, bitartean beste berbarik ezarri бага.

Erderaz, barriz, izen-ondo, aditz-ondo eta esaldiaren beste osagaiak aditzaren ostean ondo joan daitezke, edo onelantxe joan bear dabe, aitaturiko esakuntzetan ikus daitekenez.

Ona beste adibide batzuk:

Ayer fui a Bilbao, entré en una tienda y compré un par de zapatos. Esakunotan galdegaia a Bilbao, en una tienda eta un par de zapatos dira, nora joan nintzan, non sartu nintzan eta zer erosi neban itaunei erantzuten jakelako. Alan da guzti be, aditza aurretik doakigu eta gero galdegaia. Bereizi be, esaldiaren aparteko adierazkizun edo jakinkizun au gaztelerak ez dau bereizten.

Beste era batetara esanda: Nora joan zintzazan?, non sartu zintzazan?, zer erosi zenduan? itaunei gaztelerak aditza leenengo maillan ipiñiaz erantzuten dautse: Fui a Bilbao, entré en una tienda, compré un par de zapatos.

Euskeraz, baiña, bestetara jazoten da: galdegaia leenengo eta gero aditza. Onelantxe:

Atzo Bilbo'ra izan nintzan, denda baten sartu nintzan eta zapata-pare bat erosi neban. Gure egunotan, alan be, gazteleraren eragiñez, onelango erderakadak entzungo doguz: Atzo izan nintzan Bilbo'ra, sartu nintzan denda baten eta erosi neban zapata-pare bat. Au ez da euskera, erdera baiño. Euskaldunak gazteleraz diarduenean, euskeradakak be botaten dabez: Ayer a Bilbao fui, en una tienda entré y un par de zapatos compré. Au be ez da gaztelera, euskera garbi-garbia baiño.

## LEGE ONEN GARRANTZIA

Euskera jatorrez itz egiteko eta idazteko lege onek daukan garrantzia ezin esan alakoa da. Ementxe, ementxe dago euskeraren jatortasuna. Galdegaia ondo ez darabillan idazleak edo iztunak ez dau egundo euskeraz ondo egingo. Berbak euskerazkoak izango dira, baiña joskera erderazkoa. Eta erdal giro batetan murgildurik gagozanez, onelango esakera traketsak euskaldunen artean be eurrez entzuten doguz.

Euskeraz ondo egiteko aditzak esakuntzaren azkenengo lekuan joan bear dauala bein baiño geiagotan entzun edo irakurri izan dot. Au, baiña, ez da egia. Aurreragoko lan bietan agertu dogunez, galdegaia dan berbea (edo berbak) aditzaren aurre-aurrean joan ezker, beste osagarriak (galdegai ez diranak) galdegaiaren eta aditzaren aurrekaldean zein atzekaldean joan daitezke.

## «BELARRIA» BEAR

Arazo onetan erdereak ez dausku ezer lagunduko. Erderaren joskera guztiz bestelakoa danez, erderaz pentsetan badogu, erderak urtengo dausku, ez euskerak. Eta auxe zoritxarra. Erdera utsez eskolatu ginduzen-eta, inguru guztian eta milla modutara erdere entzun eta entzun besterik ez dogu egiten-eta, «belarria» be erderara egin jaku. Eta erderara egindako «belarria» daukagulako, erdereak urteten dausku bai idazkeran eta bai berba egikeran. Euskal joskera galdu egin dogu orrexegaitik. Auxe da euskaldun askoren —eta idazle askoren— zoritxarra.

Esakuntzaren zein berba dan galdegaia jakiteko, ez dago araurik. Orretarako «belarria» bear da, umetatik euskerara egiñiko «belarria». Au dala-ta, euskerea umezaroa igarota gero ikasi dabentzat eta ikasten diarduentzat guztiz gatx egiten da euskal joskera jator batez jabetzea. Guztiz gatx. Gramatikazko arauak ikasiko dauz, aditza bera be bai, baiña euskal joskera jatorrik ez dau bereganatuko, edo guztiz gatx egingo jako, ekiñaren ekiñez zerbait lortu arren be. Gramatikek ez dabe ori emoten.

Euskeraz ondo egiten dabenei entzun eta entzun egiñez, liburu onak irakurritz bereganatu bear izango dau arazo onetan bereganatu bear dauana. Umetan euskerarik ikasi ez dabentzat orixe da, izan be, bide bakarra. Irakurtea bera baiño euskeraz ondo egiten dabenei entzutea obe, «belarria» euskerara egin daiten.

# EUSKERA

## BASERRIETAN ETA URIETAN

### ASKOREN ARTEAN

Munduan izkuntza asko dagoz, ori ukatu eziñekoa da.

Babel'go Torrea egin zanean, Jainkoaren asarrekuntza bategaitik sortuak dirala, diño Liburu Santuak.

Nik ez dakit euskera orduan sortukoa dan ala ez, baiña ziur dakidana auxe da: Europa'ko inguruan gizon batzuk, Europa'ko izkuntzen erroetatik ez datorren izkuntza baten bitartez alkar ulertzen dirala.

Eurak Aitor'en izkuntz zarra dala esaten dabe: EUSKERA.

\* \* \*

### EUSKERAZ EGIN

Gizon orreik gu gara.

Geu gara Euskal Errian bizi garenok eta izkuntza orren jabeak, geu gara izkuntza ori sendatu bear dogunak.

Geuk daukagu ardurea izkuntz ori galdu ez dadin eta orrexegaitik gure izkuntza euskera izan bear da, euskeraz egin bear dogu.

\* \* \*

### EGITEKO IKASI

Guztiok egin bear dogu euskeraz berba, gizonok eta emakumeok, gazte ta zarrok, guztiok.

Ez dakientzat doa esaldi au: «Ez dakianak, ikasi; dakianak irakatsi».

Nire ustez, esaldi onetan gordeten da gaurko lana. Euskera egiteko, jakin egin bear da eta jakiteko ikasi.

Baiña euskera jakitea ez da «egunon» edo «Gora Euzkadi» esatea, ez, euskera jakiteko orduak sartu bear dira liburu-artean.

\* \* \*

### EUZKADI'KO IZKUNTZA

Euskera zarra dala esan dot, bai zarra gorputzez, zarra urtez, baiña gaztea biotzez.

Oraindiño landu barik dago.

Len euskeraz egiten zan, gaur gure asmoa euskera egitea da, ez daitela galdu, eta gure itxaropena, auxe izan bear da: Euzkadi'n izkuntza nagusiena: EUSKERA.

\* \* \*

### LEKU GUZTIETAN

Gaur euskera baserrietan baiño ez da nagusi, urietan erdere da jaun eta jabe.

Baiña biar-egunean euskera izkuntz nagusi izatea gura ba'dogu, euskeraz egin bear da, ez bakarrik baserrietan eta ikastoletan, baita, urietan, lantegietan, eskoletan, tabernetan... leku guztietan be.

Euskerearen jabeak guztiok izan bear dogu eta ez gara izango euskerarik egiten ez ba'dogu.

\* \* \*

### BARRIAK LORTU

### LENGOAK EZ GALDU

Orrelan ba, euskera zarra dalako (eta ez museorakoa), gure asaba zarrak emondako gauza bat dalako, geurea dalako, euskeraz egin bear dogu edozein lekutan, eta guztiok, beti, ostantzean zertarako izango dira ainbeste autonomi, askatasun ata beste ainbeste gauza, geurea dana galduten ba'dogu?

ENDIKA

# URREZKO OZPALAK

## ALARGUN GAIXOA

Ama alargun batek seme-alaba asko zituan, eta ez eban iñungo aise, atsedean eta onik: ez jateko ogirik, ez jazteko soñekorik, ez eta berotzeko egurrik.

Bere semetxu nagusia bidaldu eban, bein, aberats batengana..., ea lakari bat urun emongo ete cutson, goserik iltzen egoela-ta.

Aberats orrek ukatu, eta umea negarrez amarengana, ez utsola emon gura-eta...

Bigarren semetxua bidaldu eban, geroxeago, beste aberats batengana... ea soñetako oialik emongo ete cutson, otzaz akituta egoala-ta...

Arek ere ukatu, eta umea negarrez amarengana, ez utsola emon gura-ta...

Irugarren semetxua bidaldu eban, urren, beste aberats batengana..., ea otzara bete ozpal emo-go ete cutson, otzaz kikilduta egoala-ta... Eta:

—Bai— esan cutson aberats orrek irugarren semetxuari.—Goiko sagasti ondoan zegok egur pillo bat, eta ekark gurdi bete.

\* \* \*

## BIOTZ ONEKO ABERATSA

Esan eta egin! Ba etorren, bada, ume ori gurdia ozpalez beterik, eta biotza pozturik. Bere etxera eldu, eta deadarka asi zan, ate aurrean:

—Ama!, begira, zer egur-pilloa!

—Seme!, zer dakark or...?

—Ozpalak baiño obeak... Adaki sendo-sendoak!

Ez dozak egur-adakik, seme!

—Ezetz?

—Begira, begira ondo, ume!

—Ene! Diz-diz dagie adaki guztiak. Zer da ori, ama?

—Urrea, ume, urrea!

Amak bere seme-alabai deitu, urrezko diruak banandu, eta ogi eroatera bidaldu eban bata, okela ekartera bestea, ardoketan urrengoa, eta etxean bear ziran gauzen billa guztiak.

\* \* \*

## BIOTZ TXARREKO ABERATSA

Eta lenengo aberats arek ori ikusi, ta:

—Ume —esan cutson urredun mutikoari— Ume, nun lortu dok urre ori?

—Ango gizon arek egurra emon daust, eta egurra urre biurtu yat. Ni neuk ekarri dot gurditan.

—Bai...? Ez dok egirik izango!


—Bai, bai!

—Oa, bada, barriro egur billa, eta ekark neure etxera ere.

Joan zan, bada, mutiko ori egurketan, eta gurdi bat bete, eta aberats zikoitzaren etxera iritxi zan.

An egoan aberats ori mutikoaren zai. Au iritxi bezain arin baiña, xagu ta piztitxar biurtu ziran gurdiko egurrak. Eta aberats zikoitzaren kutxa, arasa ta ganbaratera sartu ziran. Eta bertoko jaki, soñeko ta puska guztiak iruntsi ebezen.

ESTONBA'TAR MANUEL'EK



**EUSKEREA IRASTEKO, ENTZUN ETA ULERTU**

**XABIER PEÑA'REN IRAKASPENAI JARRAITUZ.**

**KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.**

**ESKATU**

**EUSKERAZALEAK ALKARTEARI**  
(Colón de Larreátegui, 14-2.º)

# BERSOETAN

## BITTOR, FIKAR GAZTEA

### MAITAGARRIA

Larros artean legez ebillen  
bildots zuria lanean,  
ogetabiko gazte lerdena  
maitez urtzen biotzean.

Ogetabi orriko landara  
Zugatza baño beñago.  
Eder. Osasuna bera baño  
mutilla zan maitegarriago.

Odola garbi, arin, zaiñetan.  
Buru argia aidetan.  
Bizitz ontako amets guztia  
itxaropen dardaretan.

Larrosa bezela zara eder  
bildotz ain zuri zuria,  
lantegira zoaz bizi legez  
gazte lerdan biotzia.

\* \* \*

### L A N E A N

Lanean ari da gogo garbiz  
euskaldun mutil gaztea,  
zer dabil gogoan, berez...  
¡udabarriko lorea!

Bizia maite dau barne gogoz  
azurrak aragia aña,  
osasuna dario begitik  
gaztearen bizi miña.

Lana maite dau gazte-biotzez,  
egia añean bardin,  
bizi miñak dei egiten, berez,  
lurrak landutzen nai burdin.

Alegiñak alegin egingo.  
Bitorren zintzotasunak



zer ete dabil biotzean, berez,  
gaztearen maitasunak.

\* \* \*

### Z I N T Z O

Bittor, zintzorik, dabil lanean.  
Ez dau txarrik biotzean,  
Ezta kezkarik barnean sortu  
gizon - lanaren legean.

Otsoa inguruan dabilkio.  
Iñork ez daki lurrean.  
Lapurrak bezela iruntzi nai dau  
bildots zuria lanean.  
Ai!; bat batean, alanbra ariak  
jo dau biotz muin erdian,  
sua izan da gori-goria  
dardara ilkorrez batian.

Argi indarraren ankerkeria...!  
Mutilla il dau goizean.  
Bittor biotzdun ebillan baño  
su-otso egon atzean.

\* \* \*

### S U A G A

Egiz, suaga iltzaille bat bezela  
agertu jatsun etsaia,  
bizia, bitxirik ederrena,  
erre eutsun ankerkeria.

Baña gizadia, bat batean,  
zurekin errukitu zan,  
zu laneko lagunaren artean  
martiri biurtu ziñan.

Ondorengo ordu guztietan,  
zu zenbilleezan miñetan,  
gizonen odola lertzen egon  
zure maitasun garretan.

Su-arrak kiskaldu ba-zinduzan  
gorrotozko kirtenkeriz,  
gizonen biotzak maite zaitu  
gozotasunez berariz.

\* \* \*

### I T Z A

Jaungoiko Itza zan zuretzako  
santuenik santuena,  
il ezin dan gizonen egia  
ta geroko atsedena.

Nor etzan zure ondoren joan  
jaio ziñan Eleizara,  
nork ez sentidu zure il-otza  
norbere biotz erara...?

Jendetza aundi artean egoan  
Kristo maiaren gañean,  
guztio, sinismenez, esaka:  
artu eizu zure etxean.

Sinismen, maitasun, itxaropen,  
onoimenik santuenak,  
gizon garraziz eske ebiltzan  
zure lagunik onenak.

PAULIN



# SORGIÑAK EUSKALERRIAN

**EDESTI IKARAGARRIA.**—«Sorgiñak», berba au entzunez bakarrik, guk gaur barre egiten dogu... baiña ez ziran barreka il Euskalerrian sugarretan il ziran sorgiñak.

Sorgiñak izan dirala eta ez dirala, guk uste dogu dana guzurre izan dala, baiña sorgiñen edestia edo historia Euskalerrian luzea eta bildurgarria izan da.

Gaur alako zati txiki bat bakarrik emongo dot, beste egun batean jarraitzeko asmoz...

\* \* \*

**PIERRE DE LANCRE JAUANA.**—Laburdin euskal sorgiñen erretzalea Pierre De Lancre Jauna izan zan.

De Lancre frantzesana zan, eta euskaldunen arerio amurratua.

Laugarren Endrike Erregeak aginduta, Bordeletik (Burdeos) Laburdira etorri zan su ta gar 1.609 urtean, Euskalerriko sorgin guztiak bein betiko «garbitzeko» asmoz.

Berak esaten eban: «Obe da amar erubako iltzea, sorgin batek nire eskue-tatik iges egitea baiña».

\* \* \*

**ZERGATIK EUSKALERRIAN AINBESTE SORGIN.**— Pierre De Lancre Jaunak lau arrazoi edo zio emoten ditu gure errietako sorgiñenugaritasuna azaltzeko.

Arrazoi oneik gaur guretzat barre-garriak dira, baiña orduan eta ordukoentzat guztiz onak eta benetakoak ziran.

\* \* \*

**SAGARRAK ERRUDUN.**—Euskalerrian sagar asko dago, eta sagarra deabruaren igalia-frutua da.

Satanasek sagarraren bidez enga-ñatu-atzipetu eban Eba, eta onen bidez Adan.

Orregatik sagar asko dagoan lekuan deabru asko egon bear, nai ta naiez, eta sorgiñak deabruaren seme-alabak dira.

\* \* \*

**EUSKALDUN MIXIOLARIAK.**—Euskalerritik mixiolari asko joaten dira Indietara, Txinara eta Japonera Kris-

toren fedea zabaltzera, eta ango lurraldeetatik mixiolariak uxatu dabezan deabruak mixiolarien sorterrira etorri dira, an bizitzeko lekua mixiolariak kendu deutezelako.

De Lancre Jaunak «serio - serio» diño, zelan Indietako itsasoetan ibili diran mariñelak, millaka deabruak ikusi dabezan lañoen gaiñetik egaz, Txinatik Euskalerrira etorten.

\* \* \*

**EUSKERA ERRUDUN.**—Euskaldunak misteriozko izkuntza zikin batez berba egiten dabe.

Euskerak ez dauka antzik ez frantsesarekin, ez beste edozein izkuntzekin.

Euskera izkuntza basatia da, eurak bakarrik ulertzen dabena.

Nork erakutsi deutse euskaldinei izkuntza zatar eta naastu ori?

Satanasek berak.

\* \* \*

**EUSKALDUNAK EUSKALDUN.** Euskaldunak esaten dabe, eurak ez dirala ez frantsesak, ezta españolak.

Orduan zer dira ba?

Satanas beraren seme-alabek.

\* \* \*

**SORGIÑAK ERRETZERA.**— Arrazoi edo zio eder oneik buruan ondo sartuta, eta euskaldunen aurka gorrotoz beterik, De Lancre Laburdira etorri zan, eta laster bete ziran espetxeak «sorgiñez».

Edozeiñek salatzen ba'eban bere auzokoen bat sorgintzat, laster errea izango erriko enparantzan.

\* \* \*

**ZAZPI ELEIZ - GIZON ERRE.**— Eleiz - gizonetatik asi zan Pierre De Lancre Lanean euskaldun guztien «eskamenturako».

Azkain'go parroko Argibel Jauna, gizon ona, gixajoa, sorgintzat salatua izan zan, eta bere abade jantziak kenduta, edozein lapur bezela, bere erriko enparantzan errea izan zan.

Zergatik?

Argibel Jaunak Jaungoikoa ukatu eta Deabrua gurtutzen - adoratzen ebalako, Meza emotean ogi ordez iketz



zati bat sagaratzen ebalako, umeak bateatzean sorgin egiten zituclako...

\* \* \*

**EUSKALDUNAK BILDURREZ IGESKA.**—Errietako euskaldunak ikaratuta, bildurtuta euren etxeetatik basora igeska asi ziran, baiña orixe bera zan De Lancre'rentzat arrazoirik onena sorgiñak zirala jakiteko.

«Kontzientzia garbia baleukie», esaten eban «ez leukie justiziagandik iges egingo».

Eta onela iru illebetan sorgiñak arrapau, lotu eta erretzen ibilli zan Laburdiko errietan.

Zenbat erre zituen?

Ezin esan, baiña eundakak bai.

\* \* \*

**EUSKALDUN ARRANTZALEAK ETA DE LANCRE.**—Gauza oneik Laburdin jazoten ziran bitartean Donibane Lohitzuneko arrantzaleak Terranobako uretan makallaua arrapatzen ebizen.

Laburdin, euren emazteak erretzeko arriskuan egozala jakin ebenean, makallaua alde batera itxi, eta bereala etxeratu ziran.

De Lancre Jaunak arrantzaleen bildurrez Paris'era anka egin eban, bere narrua gordetzeko, bestela ez eban bizirik untengo.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI'K

(Jarraituko dau)

# R. M. AZKU



Atsegiña sortzen omenaldiak. Merezidauanari cgiña danean, jakiña. Merezidauanari cgiña danean, jakiña. Merezidauanari cgiña danean, jakiña.

Oba ez, ta ez gitxi. Sarri norbaitek, abotsa jaso ta eskatu daualako, omendu egin oi dogu urlia naiz sandia.

Merezirik? Ba'leiteke. Baiña ba-dira beste asko mereziago dabenak; Onceik ez daukie olako abots zolidunik, eta or diraue ixil-zulo.

\* \* \*

## AZKUE'RI OMENALDIA

Azkue zanari ez yako merezi aña omen egin.

Lekeitiar au beti txalotu bear gendukena da.

Olakoxea bait zan, euskal zelaian ain zuzen, Azkue: andia, jakintsua, marka guztiak erre zituna; guk noznai txapela kendu bear dautsoguna.

Il zanetik izan ditu omenaldi ta jai batzuk, baiña kaskarrak, noizean beingo, meatz eta bakanak.

Guk uste baiño, euskal arloan diñot, askoz lan geiago egiña dogularik, ezta bear bestean ezaguna aren irudia, aren nortasuna.

Ezta bere jaioterrian bertan be. Euskaldunok beti erdi-jakitun eta,

geure gauzetan batez be, kultura urrikoak izan ez gaitzan, lekeitiar gazte talde batek omenaldia egin nai izan dautso Azkue euren erritar jakintsuari.

Asmoa ezta asmotan geratu, sarri jazo oi danez; pentsatua azur eta mañiez jantzi dabe.

Txalogarri doguz, beraz, Lekeitio'ko gazteak, bide ortatik diarduenak.

\* \* \*

## LEKEITIO'RA

Dei bat izan neban asko ez dala, Lekeitio'tik.

Oindiño ikasle dan Etxebarria'tar Aitor'en abotsa zan urrutizkiñez.

Omenaldi bat eratu ta aurrera atera nai eben Pazkoetako oporraldian, oitura zarrari ekiñez, Azkue zanaren euskal lana goratzeko mai inguruko bat eratuaz.

Nik be, beste biren artean esku artzea nai eban.

Pozarren crantzun neutson «baietz». Zelan ezetz esan gazte adoretso batzuen deiari?

Epaillaren 30'an zan mai-inguruko ori eta ara zuzendu nintzan eguen arratsaldez.

Aurretik eta gero be bai, eguraldi euritsuak euki doguz nunbait; egun a, ostera, oso ederra izan zan.

Zornotza'tik arakoa pozik egin neban: Gernika, Ibarrangelu, Elantxobe, Izpaster, Lekeitio, zoragarri be zoragarri, neukazan, udabarriko giro bikaiñez.

Lekeitio'n zain neukan Aitor, jainko txiki baten antzera, irribarrez ta adeitsu.

Esanak esan, gure gazteak balio dabe edozein Laterriko agintari naiz ordezeko artzeko be. Zeatz, zur eta adiak ditugu.

Orretan, ostera, Lekeitio ez dogu edozein: ementxe bai zan bizi izan urteetan Zita erregiña bere seme-alabakaz.

Egunokaz be, esan daustienez, emendik izan da lenago bertan emondako urte ta egunen gozotasuna barrero be miazkatu nairik edo.

\* \* \*

## MAI INGURUA

Zortzirak eta amarrean, Gizarte-Ikastetxeko saloian giñan guztiok, gu iru izlariok —Alfontso Irigoien, J. M. Arana Martija ta ni— eta jentea naiko ugari.

Aratu guztiak zerbait geiago jakin gura eben, Azkue zanari buruz.

Ez, jakin-zaletasunak ez dauko iñoiz be gecigirik.

Ikasiz geugandu oi dogu kultura, irakurritz eta entzunez batez be.

Euskaldunok —besteak ez?— badogu orren premiña ta bear-izanik, geure gauza askotan ez-jakiñak gara-ta.

Mai inguruan giñan; naiz-ta duin izan ez, erdiko nintzan ni, Irigoien eta Arana ezker-eskuma nitularik.

Baita urruntxoago, aurkezlea ta Bilbao'ko Erri-irratiko gazte adoretso, zoli bizkorak be.

Gaiak banandu ostein —nik, Azkue zanaren bizi-zeaztasunak, Irigoien'ek Azkue'ren euskal lanak eta Arana'k Azkue'ren musikari buruzkoak—, ekin geuntson geure arloari.

Nik, Lekeitio ta inguruak, bertoko arrantzale, baserritar eta gizaseme jakintsuak goratu ondoren, Azkue'ren bizitza jalgi ta urkuldu neban gain samarretik.

Bizitza ederra egiaz, euskaldun jakintsu batek burutua.

Azkue, soiñez, zabala, sendoa, andialuzez, txairoa ta osasuntsua zan.

Gogo izakeraz, ostera, bizia, zolia, adimen argikoa, edozein gauza sakon aztertzen ekiana.

\* \* \*

## BIZITZA

Gazteiz'en ikasi ebazan abade-karrerako gaiak, gero Salamanka'n osoturik.

# (1864-1951)

Irakasle edo Doktor titulua eban Teologian.

Apaiz langille ta sinismen andikoa izan zan, bere bizitza osoa Bilbao'n egiñik.

Aste barruan eguneroko lanari ekiñik, igandetan Kristoren Itza ereiten alegindu oi zan.

Apaiz-apostolutza lez artu eban euskal lana be: itzez eta idatziz, eta joan-etorritz, bere erriaren biotzeraiño eroango eban Jaunaren erreiñua.

Gaztetatik euskal maixu izan zan. «Euskalzale» ta «Ibaizabal» asterokoak sortu ta zuzendu ebazan urte batzutan.

Euskalari lez, ainbat liburu eder osotu euskuzan; baita ainbat kantu, eresi zar, esakun, ipuin eta abar batu be.

Bere lanik ederrenak: Iztegia, Mofologia Vasca, Kantutegia, Euskalerriren Yakintza, Urlo opera ta abar.

\* \* \*

## LANAK

Irigoien'ek, Azkue'ren euskal lana biribildu euskun batez be.

Ortografiari buruz Arana - Goiri-rekin euki zituan eztabaidak aitatu ondoren, bere lanik urtenenak aztertzen

ditu: «Euskal-Izkindea», «Proyecto de Ortografía», Iztegia, «Gipuzkera osotua», «Ardi galdua», ta gaiñerakoak.

Asko idatzi eban Azkue'k, joskera onez eta gizonkiro.

Aren eritxiak, geienak beintzat, ge-roago be aintzat artuak izan dira.

Euskera batuaren aldekoak be, gai askotan Azkue'ren jarraille dira.

\* \* \*

## GARBIZALEA

Garbi-zalea zan Azkue. Eta Arana-Goiri'k bere garbi-giroa sortu baiño lenagotik esan gengike.

1891'an argitaratu eban bere «Euskal Izkindea», 401 orrialdeko euskal gramatika; eta Arana-Goirik, bere «Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino», esaterako, 1896'an emon eban argitara.

\* \* \*

## ERESLARI

Arana-Martija'k, azkenez, Lekeitio'ko musika-giroa bizi-jarri ondoren, bertako musikalarik aipatuena gogora euskuzan.

Azkue be, giro orretan, naitaez musika-zale izan bear.

Eta orrela izan yakun.

Or-emen Iztegirako ta Kantutegirako lan billa Euskalerrri osoan zear ebillerik, beta izan eban oraindik erbestera joan eta Paris'en, Bruselas'en eta Kolonia'n armonia ikasteko be.

Eder eban euskal musika, ta gaztetatik asi zan berau ikasi, landu ta sakabanaturik ebiltzan euskal musika txatal bitxiak batzen.

Eta egin zituan kanta zar bildumak besterik egin ez ba'leu be, ondo irabazia eukan betiko izen ona, ospetsu baizen ederra.

Musika-lanen artean, «Cancionero Vasco Popular» deritxona, ikaragarria da.

Orrezaz gaiñ, iru oratorio idatzi zituan, eta opera bi, «Ortzuri» ta «Urlo», bigar'en au batez be oso ederra, arnas aundikoa.

Gai onetzaz itzaldi bikaiñak be sarri emon ebazan.

Txalo bero artean amaitu zan mai-inguruko jarduna.

Pozik geratu ziran lekeitiar gazteak, Azkue jakintsuari opatu geuntson goratzarre onekin.

AITA ONAINDIA

## AZKUE JAUNAREN LANAK:

1) EUSKERARI BURUZKOAK: «Euskal Izkindea» (Bilbao, 1891); «Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano» (Bilbao, 1896); «Proyecto de Ortografía» (Bilbao, 1896); «El Euskera o el Bascuence en 200 lecciones» (Bilbao, 1897); «Manual de Conversación» (Bilbao, 1901); «Diccionario vasco - español-francés» (Tours, 1905-06); «Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular» (Bilbao, 1917); «Diccionario de bolsillo vasco-español y español-vasco» (Bilbao, 1918); «Marfología vasca» (Bilbao, 1923); «Neologismos formados a imitación de otras lenguas» (Bilbao, 1929); «Acerca del Santoral vasco» (Bilbao, 1933); «Gipuzkera osotua» (Bermeo, 1935); «El Vascuence y varias lenguas cultas» (Bilbao, 1949).

2) LITERATURA - LANAK: «Txirristadak» (Bilbao, 1898); «Bein da betiko» (Bilbao, 1890); «Jesusen Biotzaren Illa» (Bilbao, 1901); «Ardi galdua» (Bilbao, 1918); «Itzaldiak» (Donosti, 1923); «Laminak Euskalerrian» (Bilbao, 1927); «Euskalerriren Yakintza» (Madrid, 1935); «Ipuñiak» (Bilbao, 1968). Argitaratu barik: «Grankanton

arrantzaleak»; «Ortzuri», nobela; «Latsibi», irakurgai; «Kristo'ren Antz-bidea».

3) MUSIKA-LANAK: «Euskerazko Eresiak»; «Eleizarako Eresiak»; «Ingurrazti batzuk»; «Eresian zerki oneik: a) *Vizcaytik Bizkaira*; b) *Sasi-esk la*; d) *Aitaren bildur*; e) *Gainzabale'ko eiztaria*; f) *Eguzkia nora*; g) *Colonia inglesa ta h) Pasa de Chimbos*. Iru oratorio: «Daniel», *Lamindano ta Andra Urraka*. Opera bi: «Ortzuri» ta «Urlo», Bilbao'n 1909'an eta 1912'an antzetzauak. «Cancionero vasco popular» (Barzelona, 1918), 12 tomu, eta (Bilbao, 1968) ale bitan. Itzaldiak: «Musica popular bascongada» (Bilbao, 1901); «Música popular vasca» ta «La música popular vasca y la griega» (Bilbao, 1919); «La tradición en nuestra música popular religiosa» (Gazteiz, 1930).

Nazario Oleaga'k onela: «Esan nei, Azkue'ren irudia zeatz eta osoan agertu dedin, bere eresi zaletasunak bere bizi guztian iraun ebala, larogetakaz urteak ebazala be, beste lanen atsedenez, sarri lan gelan eukan aurrean jazarrita, joten eta abestuten iñarduan eta».

## ERRIKO ARAZOAK

# BIZKAI'KO KOLKOA

### ITXASPEKO URAK

Euskalerriko ispazterretan itxaspeko urbizi nabaritsuak ei dagoz.

Ez dira guztiz ezangunak eta jakintsuki euren joan-etorriak eta itxas-barna ze goi-berako neurrian ibilli dabiltzan guri jakin-arazteko, Gipuzkoa'ko lau toki ezberdinetan 15 milla plastikozko txarteltxoak itxasora botaten diardue.

Kopuru aundia benetan.

Orrez gain, urte-azkeneara luzatuko ei da txarteltxoak bitarteko, ainbat argitasun eta bestelango zerzeladak izan dagiguzan.

\* \* \*

### URDANETA IKASTETXEA

Gopapen onen eragillea «Andres Urdaneta» izenezko Euskal Lutelestiko Institutoa edo Araudi-Ikastola ei da.


Onen arduraduna, ori ta be, Donosti'ko Aurrezki-Kutxa Udaldarra ain zuzen.

Olan ze-nolako itxas-kutsadurak inguratzen gaituen, arrain mueta askoren nundik norako ibillerak eta abar, obeto ezagutzeko gerturik egongo gara, euren iritxiz.

\* \* \*

### ASKOTARIKO LANA

Ez uste txantxetako lana danik.



Igarigaia ta txartela

## LENENGO JAUNARTZLA

Ba da udabarria, ba da jorrailla.  
Orri bigunaz bete dira zugatzak.  
Pozik, egun onetan, etxeko jaunak  
Begitzen dauz ortuan, loran sagarrak.

\* \* \*

Beste poz bat biotzan, andiagua:  
Gaur alaba txikia jaunartzen dua.  
Jantzi barriz jantzita, ondo orraztuta,  
Amagaz cleizara, esku batuaz.

\* \* \*

Gaur izan da igandeko meza nagusi.  
Jaunak mai-inguruban, ain beste txiki

Beste zer batzuen artean, gaurko lantxo onetan, bigaz mintzatuko gara bereziki.

«Correntímetros» edo urbizi onein neurketak egokitsu egin dagiezan tresna baliotsuak itxas zabalean nun kokatu bear diran, begiztatu bearra izango da batetik.

Eta bestetik ur-azaleko igarigai edo flotadorak eta berebat txarteltxo taialariak, bide erakusleak be erabili bear ko dira nunbait.

Gauza barria ez danez, oartu dagigun beste errialde batzuetan be oneitariko jakin-bideak itxasoen barna bein eta geiagotan burutu dabezela, eta baita ere ondorio baliotsuak emon dautsezela geienbaten.

\* \* \*

### IKUSPEGI ZABALAGOA

Euskal-lutelestiko Araudi-Ikastola, gaiaren zailtasunagaitik eta batez be lentxoago baten beste Erakunde garrantzitsu bik be Bizkai'ko Kolkoan aurkitu oi doguzan urbizi ta itsariñatzez euren lanak aurkeztu ebezanez, Erabide bi oneitan oiñarritu da bere zeregiñean.

Aurretiko lanen egilleak Prantsestar guda-ontzidia 1967'garren urtean eta Gipuzkoa'ko Osasun-bideko Buruoa 1966 garrenean izan ziran.

Aurtengo lanen amaieraz, eta len bateko beste biak erro lez dauzala, itxas-urbizien gaurkotutako ikuspegi zabalagoa ta osoagoa izango dogulakoan gagoz.

\* \* \*

### TXATELEN JAURTZEA

Aurten, illeroko arazoa izango da txarteltxoak itxas-gaiñera botatzea ta beti lau toki ezberdinetatik ziurkiro.

Ortarako, jaurtze bakoitzean, giroaren goraberako parametruak ezezik, baita itxas-jakintzarenak ere begiztatu bearko dira.

Agiriko oar baten Euskal-Lutelesti'ko Institutoa dira, txarteltxo oneik idoroten ba'doguz bialdu dagiguzala Donosti'ra.

Zuzenbidea: San Marcial 13-4.

Txartel zuriak dira, plastikoz inguraturik dagoz eta igarigai edo flotador txiki bat dabe.

Ondartzetan agertu leitekez.

Txalogarria izango da goiko zuzenbidera eurak bialtzea.

ARREGI'tar JOSU'k

Izan dauz, maitekorrak, danak ixillik,  
Biotz errubakoak, Berari eskintzen.

\* \* \*

Auxe da danontzako egun alaya.  
Jaunaren onespenez, ospatu jaya.  
Amamak emon dautso gomutakia,  
Irudi polit baten auxe idatzia:

\* \* \*

Birgiñan besoetatik  
gaur etorri da zugana  
zeure laguna izateko  
Jaungoiko seme bakarra.  
Ezaitz iñoz urrundu  
lagun maite onetatik.  
Ez munduan, ez zeruan  
cztagolako oberik.

UTARSUS

# GAZTEEN ESKUBIDEAK

## GAZTEAK AZTERTZEN

Sarritan entzuten da, gaurko gaztediagaz ezin leitekela iñora joan.

Dana dala eskubideak eskatzea, baña ardurak artu barik.

Orain arte egindakoa txarto dagoala esaten dabela, baña bide barririk erakutsi barik.

Gizadi zarra dana apurtu gurean dagozala, baña ez dakiela zelan beste bat jaso.

## SENECA'REN AZTERPENA

Ez da gaurkoa. Orain bi milla urte Seneka'k esan ei eban, orduko gaztedi letsabakoagaz ez egoala zer egiñik.

Euren norberekeria agertzen eben edonun, gurasoai eutsen itzal edo errespetu eza, dana baten esateko, gaztedi galdu bat ei zan.

## ELDUAK ERRUDUN?

Dana egia ete da ba? Orren besteko gaiztoak ete dira euren jokabideetan?

Ez ete dago errurik gugan, gu eldu ta geure burua zentzunduntzat daukagunongan?

Guk geuk be, baten baño sarriago esan doguz orrelako astakeriak, baña baita be iñoiz damutu.

## EKINTZA BAT

Oraindik asko ez dala, gazte talde batek (amairu amalau urtetik amaseira arte) urreratu ta ba-diñotso Eleizako arduradun taldeari. —Biarko jaiia oso ederra da. Ezin geinke guk parte artu bere gertakizunean, kide izan ekintza orretan?

Lenengo erantzuna arrituta gelditurik. —Erantzungo jatzue.

Gero arduradunen arteko eztabaidea. Zer itxi leikioe egiten? Ezer ba-dakie ba? Orra or non elduen arrokeria agertzen zan.

Ez dogu esango gaztediaren aurka, baña oneik zerbait egin gura dauanean. —Zelan egin ba-dakie ba?

## TXALOAK

Azken baten poz pozik artzekoa zala gazteen eskari ori ta Eleizkizunak euran eskuetan itxiteko erabagi zan. Zer urten ebalu uste dozue?

Nastakeriaren bat? Eleiza Amak onartu ezin leikean aparteko zerbait? Bai zera.

Eleizatik urteten eban lagundiak iñoiz baño politagoa izan zala, ta zeregin ortan ebiltzan gizon-emakumeak txalotu egin bear dirala.

## NORI

Baña txalotu zergaitik? erantzun geuntson bat baño geiagori.

Ez da elduen lana izan, gaztetxuena baño. Eurak izan dira arduradunak eta ganera arduradun apalak, ze geien baten guk, geure eskuetan ipinten daukunean zerbait egiteko, geure erara betetzen dogu zeregin ori, baña gazte areik eskubide osoak emon jakezenean, arrotu barik, apaltasunean, elduen eritxie bearko zala eurak ez jakitun ziran arloetan eta euren laguntzaren zain egozala.

Zorionez, gazteen ekintzan sartu barik, euren askatasuna zirikindu barik, eskatzen ebezan azalpenai erantzun jaken, eta orra or non iñoiz baño jai politagoa lortu. Zer esan gura dogun onegaz?

## UTSAK

Gure gazteak utsak izango dituela euren ekintzan, baña nork ez?

Eta ganera, ez dala beti euren errua.

Zerbait egiteko asmoan dagozanean, itzi egin bear dautsegula, gure eritxi garbia azalduaz, ori bai, baña euren



ekintzan sartu barik, laguntza eskatzen ez ba-dabe; ez dauke zergaitik geure erara gauzak egin eta.

## JAZOERA BAT

Gogoratzen gara oraindik, gu gazte giñala Don Juan Agirre jakintsuak, gure Txanburu edo Parroko zanak emon euskun ikasgaia.

Diru barik gengoan eta jai bat gertau bear.

Zer egin? Don Juan'en baietza lortu, berak ain maite eban ezki (tiloa) eta Eleizaren aldamenean egoana botatzeko, ta andik ataratako diruakaz jaiia aurrera eroan.

Egin genduan gurea ta laster egoan zugatz ori ankar gora eta salgai be bai.

Zoritxarrez mota atako zugatzak baliorik ez.

Burua makurturik Don Juan'egana eldu ta lotsatuta, ba genkian zenbat maite eban eta, gure zoritxara agertu.

## ZERGAIK?

Don Juan'ek irribarrez, ba-ekiala berak orrelako zugatzak salgairik ez cukana, ta gure arritasuna ikusirik jarraitu eban:

—Zelan esango neuntzuen ba botatzea alperrikoa zanik?

Nik ain maite nebala jakiñik, ostopoak ipinten nengoala usteko zenduen, neure norberekeriagaitik gelditu zala jaiia ospatu barik.

## EKINTZA AURRERA

Jazoera onek erakutsiko dautzue, gogoa bakarrik ez dala naikoa, egin baño len gauzak ondo ausnartu bear dirala, ta oker urtetzen diranean, aurpegia emoten jakin bear dozuela.

Jai barik gelditu giñala uste dozue? Bai zera. Olako Apaitza gure alboan dogula? Ori asmatzea be... Jo emen, eskatu an, Jai arek bere garaipena ezagutu eban.

**ATXUTEGI'tar Bitor**



## EZIKETEA

# EZIKETA ETA ESTADUA

### Estaduaren arazo bat

Arazo onetako guraso eta irekasleen betebeharrak aurreko illetan aztertu nebazan. Gaur Estaduak onetan bear leuken arduraz mintzatzeko naz.

Leenengo eta bein, argi eta garbi itzi bear doguna auxe da: Estadua danok eratzen dogula, eta, beraz, Erakunde-buru au bere pertsonoz, eta gaurkoz, bere ume eta gazteen eziketaz arduratu bearra dauala.

Onetan danok gatzoz bateratsu, naiz eta eguneroko jokabidean eritzi oso ezbaridiñak agertu: batzuentzat Estadua arduradun bakarria izan bear litzake; besteentzat Estadua laguntza-bide bakarrik litzake, eziketaren arduradun bakar eta askeak gurasoak izanaz, eta abar eta abar.

Nire ustez ezin ditugu banandu gurasoak, irekasleak eta Estadua: alkarren osagarri ditugu irurok.

\* \* \*

### Eziketaren garrantzia

Eziketa ez da bizitzako leen urteetako edo leen aroko arazo berezi bat.

Eziketa bizitza guztiko danon arazo bat dogu. Adinekoak umeen edo gazteen ezitzalle biurtzen gara, baiña, urtez urte, aroz aro, geuk be geure luruz-eziketan jardun bear dogu.

Onetan be, Estaduak laterri bateko Erakunde-buru lez bere arazo berezian dau.

\* \* \*

### Eziketa mailla

Estadu baten eziketazko ardura aztertze bide erreze bat dogu: bere diru-joana ikusi: zertan erabiltzen da Estadu bateko urteko dirutza?

Zenbakiak curak azalduko daukue zenbateraiño arduratzen dan gaurko gure gai ontaz, edo zerk arduratzen dauan geien, zein dan bere jokoa: pertsonen aldekoa ala bere alde utsekoa, eta abar...

\* \* \*

## KILI-KILI

UMEAK ABEDETZEAN EUSKALDUNAK  
EGITEN DABEN.

LAN EDER-EDERRA

EUSKERAZ UMEENTZAT 1.º ALDIZKARIA

\* \* \*

LAGUNTZAILLEAK BEAR DITUGU:

- Marralariak
- Margolariak
- Eroaleak
- Zuzentzailleak
- Esku-langilleak

ETA ABAR...

LAGUNDU EGIGUZU, EZELAKO ASTIRIK BA DAUKAZU

Deitu: Kili-kili'ra, 6-16-60-49 edo  
Euskerazaleak'era: 4-23-53-22

BEAR-BEAR ZAITUGU. ZURE LAGUNTZA  
POZIK ARTUKO DOGU.

### Eziketarako dirua, diru galdua?

Eziketa Estadu-neurri jarri ezkerro, au dakusgu argi-argi: zenbat eta Estadu eziago, eta aurreratuago; senbat eta eziago, eta ekonomia onuragarriago.

Beraz, ontan eziketa Estadu baten ekonomia-eragille dogu, eta ez alderantziz.

Onela ludiko laterri ezienak ekonomiarik onenak dabez; ekonomia ona dabenak, ostera, ez dira beti izaten eziak.

Naiz eta esandako au argi ikusi, bizitzan ez da sarritan orrela gertatzen, ez Estadu maillan, ez alderdi maillan, ez sendi maillan.

Sarritan eziketan erabiltzen dogun dirua, diru galdua izaten da, edo galdua dala iraditzen jaku; edo ainbesteraiño be ez bada, diru onek beste arlo askotan erabiltzen dogunak baiño min geiago emoten dauku, esaterako: janzkeran, gizarteko artu-emonetan, oporretan edo ibillaldietan, erosketetan, eta abar eta abar.

\* \* \*

### Beraz, eziketa dirubide bat da?

Zer esanik ez.

Asiera baten ez da ain argi ikusten. Eta geiago: esetz dirudi, edo ainbesteraiño ez dirudi.

Eziketan emoten diran dirutzen ondorioak ez dira bereala ikusten, ez gitxiagorik be.

Ortik Estaduak eta mota guztietako alderdiak beste arazo batzutan ekinkorrangoak izatea, eziketari baiño ainbat garrantzi geiago emonaz.

Eta onetarako ez daukagu urrutira joan bearrik: aztertu dagigun Euskalerriko alderdiak eziketan eta beste ekintza batzutan egiten dabezan alegin eta diru-alegiñak.

\* \* \*

### Estaduaren betebeharrak

a) *Ikasguak eraiki*: Eskola bako umerik ez gazterik izan ez daiten.

Baiña eraiki bakarrik ez litzake naiko: ikas eta ezi-bide eskubide bardiñak bear gendukez danontzat.

Zer egiten dogu ikasguak izateaz eskubide bardin barik?

b) *Irekaskintza eta eziketa aurrerakuntzak bateratu*: geien-baten gure ume eta gazteak ez dira gizarte aldakuntza orrean arabera, ez gizarte orretarako eziak.

Gaur egun bizitza, gizartea, aldakuntza bereziz orniturik agertzen da aldi labur bakoitzean.

Gure eziketa ez da egokitzen neurri orreitarra.

Onela izanik, umea eta gaztea ustebako edo ezjakiñeko gizarteko bizikera, pentsaera, lanera, oitura eta jokabide-tan aurkitzen da, sarritan.

*Eziketa-arazoa ez da iñoiz amaitzen*: betikoa eta betirakoa da.

Eziketak alderdi asko ditu, ez da urte batzutatokoa, ez giza-aro batetakoa edo bestetakoa.

Gizonak, sortzetik il arte, bere burua ezitzen jarraitu bear dau. Eta Estaduak bere laterritar guztien eziketaz arduratu bearra dau.

*Eskolaurreko umez ardura berezi bat*: Gizonaren nortasun eta aalmenak leen urte gitxitan sortu eta oiñarrizten dira eta.

Onetaz, egia esan, arduragabekeri izugarria dogu geure gizarte onetan.

Zenbatetan eta zenbatetan izten etc dira umetxuak ezjakin edo ulertubakoan eskuetan, zenbatetan biurtzen etc dira dirubide ust aur-lilitegi eta ikasguetan?

Onetaz, gure Euskalerriko ikasguetan ba dago zer barritzatze ugari.

*Ikasguetarako araudi egoki bat*: zelan onartu edo babestu daitezke, esaterako, ainbeste umedungo ikasgelak, aurrera igarotzeko oiñarriak lortutzeke, umeak kurso batetik bestera igarotzeko aalmena gurasoei emotea, eta abar?

Umeen alde egindako araudia dogu ala oiñarri- ez edo txar batez E. G. B. tik aurrera (B. U. P.-ra edo Unibersidadera) onenbeste baiño ez igarotzeko jokabidea da?

LEGARRETA'TAR JOSU'K

## ITXASOETAKO

## GALERRENAK

**EGUALDIAREN ARDUREA.**—Euskal arrantzale askok, geienak, ez dakie ingeles izkuntzarik.

Baiña itxasoetan, eta legorrean be bai, adi-adi egoten dira egualdiari buruzko ango agiriak, ango «partcak» artzeko.

Ango irratien esateko eratik igarten dakiez egualdiaren gora-berak. Batez be ekaitza noiz datorren. Emengo agirieci baiño fede geiago emoten dautse angoeci.

Gaur, oraingo itxasontzi sakon eta ondo egiñakin, gaurko indar eta erabilteko tresnekin ainbateko bildurra dabela, ze gertatuko ete zan orain 60/70 urte, intxaur oskola lako ontzietan, ia eutsi ezindako aga luzetan oial zabalak goratu, lotu eta aizearen brastaden bildurrez, belak ezin zainduta eta txalopak noiz tira-bira egingo zalatza eta kezka ibili bear izaten eben denporetan?

**MENDIEN AURREAN.**—Leor urrerago ibiltzen zirala...! Bai. Baiña leor ingurua, bere olatu ta mutur eta aitzekaz, bere ondoaren gora berakin, obeago izaten al da itxas sakona baiño?

Lekeitiarrei itaundu! Otoio mendiaurrean ibili ta bere babesera ezin elduta esku ta besoak odoletan lurreratu izan diran arrantzale zarrei, asarre ta itu etxera baiño len Otoiori kañubeta sartutera joan ziranei, amorruez eta etsipenez «Otoio ba daukok odolik?» zemaika.

**ONDAMENDIRIK ANDIENAK.**—Begien aurrean gertatu izan dira sarri ondamendirik andienak.

Donostiarren didarrak entzuten itto zan Jose Mari Zubia zumaiarra, 1866'ko Urtarillaren bederatzian.

«Aita Mari» deitzen eutsen donostiarrek, aita baten biotzez uretara jaurtiten zalako estu ebiltzanak atara nairik.

Baiña itxasoak geiago egin.

Donosti ikusten ebela itto ziran Luis Karril donostiar patroi txalotua eta beste bederatzia lagun, 1892'ko Urriaren 19'n.

Motrikuko kai barruan itto ziran, 1902'ko Abenduaren 29'n, «Itziar» txalopako amar arrantzale ondarrutar.

Tatarrez egualdiari igeska etozala galdu ziran eun eta irurogei arrantzale, 1912'ko Udako Andra Mari aurretzoan.


Bermeo, Lekeitio, Elantxoben... zenbat alargun eta zenbat umezurtz! Zenbat gizon gordin eta lerdin galdu!

*Eun da amaseikua  
Bermeo bakarra,  
aurten ez dute izan  
suerte edarra...*

esango eban niñez kantari Imaz bertsolariak.  
Eta berberak gerotxoago:

*Bermeotik galdu da  
jendien erdiya,  
luloz jantzita dago  
Kosta Kantabriya.*

Euskal kai edo portuen sarrerak, barrak, gizon askoren eriotz uluak sarri entzun izan ditue.



Ondarroa: Bela ordezt motor aundidun ontziak.

**UDABARRIKO GALERRENAK.**—Ba egozan lengo denporetan arrantzalieren adiskide onak.

Zarautz'eko bikario bat, Orkolaga jauna, odcietara begira ikusten zan egun eta gauaren ordu luzetan, arrantzale gaixoen errukiz.

Geroago, Durangon, ba zan Julian Arrinda bat, kezka bardiñez, egualdiaren etoikeriren bat igarri orduko, arrantzalieren kofradietara telegrama bialtzen arduratzen zana, mariñelei kontu ta arretaz ibilteko eskatzen.

Ez ete eben sinistuten eurekin emengo arrantzaleak? Bai, ziur, baiña... Premiñak, estutasunak, goseak beartzen zituen askotan entzungor egitera.

1909'ko Maiatza zan. Arrain-egunak, antxoa-egunak.

Donostiko Igeldotik abixu bat zabaldu zan: Galerrena dator, kontuz itxas-gizonak. Orkolaga.

Alaxe gertatu be.

*Maiatzaren ogei ta  
laugarren arratsian,  
galerna bat sartu zan  
modu zorrotzian...*

Nun ete ebiltzan arrantzaleak?

Getariako kaia betien bete egin zan goizaldean, ara sartzea lortu eben ainbat portuetako ia berreun txalupekin. Nai ta sare ta tresnak itxasoan galdua etorri, areik an egozan.

Baiña ta beste asko?

*Ondarru da asko  
kastigatu dana,  
famili oyetan  
ba da naiko lana...*

Ondarroan beintzat amairu gizonen illeta jo eben. Eta udabarria zan!

A. ZUBIKARAI

## ZUMALAKARREGI

### KARLISTALDIA

Fernando VII-garrena 1833-an il zan. Eta bi zatitan banandua geratu zan Espaiñako jentea. Barrizale edo liberalak aren alaba Isabelen alde jarri ziran. Eta lengozale edo tradizionalistak Fernadoren anai Karlosen alde.

Naiko sarturik eukezan ordurako bi taldeok euren musturrak Euskalerriko arazoetan.

Geure Lege-zaarrak kendu euskuezan barrizaleak 1812-an, Cadiz'en egindako legedi barrian. Eta urren etorri ziran lengozaleak lege barri orreik kendu, ta lengoak ezarri ebezen, barriro.

Oriegatik, bi talde artean Karlistaldi deitutako alkar-guda ori sortu zanean, joko orretan egoela Euskalerraren etorkizuna ere otu yaken euskaldunai; eta bertan sartu ziran eurok ere, itsu-itsuan.

Karlosen alde geienak, euren kristautasun eta lege-zaarrak gordetzeko asmotan.

Uri ta dirundun geienak Isabelen alde, barriz, euren lantegi ta salerosketako lege barri nasaia goen billa.

Lengozale edo karlistai «zuriak» eta liberalai «baltzak» deitzen eutsen erriak.

\* \* \*

### URBASA'KO BASAKATUA

Errez ondatu ebezen Madridetik ona etorritako guda-rosteak gure basa-gudari exkakak. Ondatu ta garbitu. Zumalakarregik ezin ikusi ori, ta Iruñian bizi zan lekutik urtenda, Urbasako mendira jo eban.

Urbasan inguruko gudariak batu, taldeetan eratu, ta Itxaso, Iturralde ta Zubiri gudaiburuen ardurapean ipiñi ebezan.

Madrideko arerioak ori ikasi, eta bertako gudaibururik onenak bidaldu ebezen Zumalakarregiren aurka.

Oraa, buruzagi ospetsua izan zan lenengoa. Eta Urbasako oiñetara iritxi zanean, aren gaiñetara igotzeko ausardirik ez, eta jira ta bira asi zan, aren inguruan.

Alako batean, eta gitxien uste ebanean, Zumalakarregi, basakatuaren antzera, bat-batean gaiñera jausi, ta erabat purakatu ondoren, zekazkin zaldi, kañoi ta su-izkilloak kendu eutsozan.



Bardin egin eban, bata bestearen ondoren etorri yakozan, Lorenzo, Quesada, Rodil, Cordova, O'Donell ta Espartero beste gudaiburu orreikaz ere.

Orrela gudu-jantzi ebazan, apur-apurka, bere 20.000 mutil bizkorrak.

\* \* \*

### BILBO'N

Ez zan Madriden beste itxurazko gudaiburik geratzen, eta Zumalakarregi Madridera abiatzeko asmotan egoan Zertarako? Karlos ori bere arreve-aulkian jarrerazo, eta Euskalerrira bihurturik, bertan, lengo Lege-zaarren babes eta askatasunean bizitzen jarraitzeko.

Eta ona, bitarte onetan, Karlosen manu larri bat: Bere mutil guztiak artu, ta arin Bilbora etorteko.

Zer jazo zan?

Bilbo ori artu ezker, len aren aurka ingeles eta prantzarrak alde jarriko zirala uste eban, antza.

Gogo txarrez abiatu zan Zumalakarregi.

Artagan'eko Begoña inguruko mendixketan altxaturik, gogor eraso eutson, aren oiñetan zabaltzen zan uri esituari.

Arin amaitu bai, eta egun bitan uriko arresiak zulatu, ta bertoko kañoak ixilleazo ebezan.

Eta urrengo eguncan nundik jo, eta Bilbora sartzeko bideak antolatzen ebilen bitartean, ona Bilbo aldetik bala, galdu bat.

Bala orrek alboko arri bat jo, ekarren bidea okertu, ta Zumalakarregiren belauncan sartu zan saiezka.

\* \* \*

### ERIoTZA

Ez zala gauza aundirik, baiña Zegama'ko bere senideen etxera eroan eben, bada-epzadan.

Arin kendu eutsoen belauneko bala ori.

Baiña, andik bost egunetara, gorpu egoan gure Zumalakarregi andia.

47 urte bakarrik eukezan, il zanean, Ormaiztegi'ko seme prestu, euskaldun zintzo, eta gudaiburu trebeak.

Au dogu, agian, geure artean iñoiz azalzu dan gudaibururik azkar, bulartsu ta ospetsuena.

Itz oneik esan ei ebezan, il aurrean: «Bala bakar eta kaxkar onegaz gizona il?».

Nork erail eban, beraz?

Laister zabaldu zan, pozoituta il zala gure gizona, bere osagilleak pozoituta, bai!

«Zurien» taldekoa zala, diñoie batzuk, osagille au; eta Zumalakarregiren kideko batek bekaitzez cragin ebala orretara.

«Baltzen» taldekoa zala, diñoie bestetzuk. Gure Zumalakarregi ilda bezain laister, «Baltzetara» pasa ei zan-eta...

Dana dala, azal zuri ala baltzekoa izan, ondo barru baltza eukan alango billaukeria egin eban gizon maltzurak.

URKIOLA'k

# TXARRAREN INDARRA TA IRAKASKINTZA

**Txerrenari, sarritan, erru guztiak ezarten dautsaguz.  
Ba da errudun! Baiña munduan zabal dabillen zuzengabekeria ez ete da Txerrena?  
Gizonak izaten gara geienetan alkarrentzat Txarren!  
Ez ete gara gizonok jakintza-ogia mai zabalean ipiñi gura ez dogunok?  
Eta gizarte-arloan, zuzen egia irakastea ez ete dau galazoten gizonen norberekeriak?**

## TXERRENA MUNDUAN

Kalasanztar Joseba deunaren txikitan, egite nabarmen bat aitutzen da.

Bost urtekoa zanean, Txerrena edo Demonioña Jaungoikoaren etsaia dala entzun eutson bere amari, baita Jainkoagandik gizonak aldentuteko eta inpernuetara eratsiteko, sareak eta kateak eta atzipeak erabiltzazala be.

Ezaguera orrekaz arimea indarturik, txerrena iteko asmoa artu eban.

Ara ba, egun baten, aitzo ego kutxillo bat eskuan arturik, etxeko bazter guztietatik ebillen Txerrenaren billa.

Aurkitu ez eban ezkerro, etxetik urten eta basora joan zan.

Bere adiñeko mutil batzuk batu ta eragirik, guztiok batera, olibadira eldu ziran.

Joseba'k, aupaka, deadarka, Txerrenari agertzeko agindu eutson.

Ara non olio baten adarraren puntan, izugarrizko itxuraz, agertzen dan!

Mutillok gaiztoa ikusita ikaraturik, iges egin eben.

Joseba'k, bakarrik, kemenez, olioaren garritik gora igon eta adar baten jesarrita, aitzoaz armaturik, eskua altza ebanean... Txerrenak adarra ebagi eban eta Joseba lurtean etzanda, il ba'zan lez geratu zan.

Kalasanztar Joseba'ren bizia orixe izen zan: Txerrenaren kaltez, burruka aten-gabea.

\* \* \*

## BURRUKA - BIDEA

Bere aitak esaten eutson, Txerrena'ren aurka izkilluakaz burruka egiela, murutarren kaltez gudara beiola.

Baiña, Joseba'k, uste zuzenagoz erantzuten eutson:


—Txerrenari guda egiteko, lekurik eta izkillurik onena irakaskintza da.

Txerrena bera be orren usteko da, txarkerietan jakintsu okatzen dau ta.

Ikastoletako irakaskintzak garrantzi aundia dauka.

Irakasle onak eta jakintsuak eratu bear dira.

Urte askotan, gazteen irakaskintza oker eratu izan da. Gazteak ez dira ikastun onak, batez be gizarte zuzenerako eztabaidetan, sozial-justizi-kontuetan.



«Margolari ospetsuak irudi ospetsua»

Marx, Maho, Doipuru ta besteen irakatsiak, azalez baiño ez devez ikasten, iñoiz be bata bestearen parean ipiñi barik. Eta gazteak oldartsu diran ezkerro, Marx'tarrak edo, egiten dira geiagoko barik.

Gizarte-etztabaidetan gizon jakintsuai irakurri ta itandu bear dautse.

Ikastoletako irakaskintza arduraz artu dagigula, Erriaren etorkizuna bertan daukagu ta.

**NORBAIT'ek**

## ZENBAT BURU, AINBAT ABURU

- IRITZI ARRIGARRIAK
- BELLIDO EUSKALZALE!
- EUSKEREAK ERRUA!

- ORTIK NORA?

Edozelako gaiari buruz azterlanetan iritzi arrigarriak zabaltzen ba'dira, euskereari buruz jaurtitzen diranak ez dira txikienak.

Jaungoikoari esker, baiña azala gogortuta daukagu aspaldian edozergaitik arritzeko.

Dana dala, Jose M.<sup>a</sup> Bellido jaunak, lau idaz-lan luze burutu ondoren, orain dala illabete inguru, DEIA'n argitaratua, azalik gogorrena biguntzeko bestekoa da.

\* \* \*

Ikusten danez, gizon jakintsu ta izkuntzetan trebea da. Iru edo lau beintzat ikasi ta erabiltzen dituana.

Diñoanez, donostiarra da; gurasoak eta etxeko senide ta neskameak euskaldunak izan arren, ez ei eban iñoiz euskera ikasteko edo egiteko erarik izan, etxekoak erdera egitea ederragotzat euki abelako.

Urte bi luzeetan, astean lau ordu ikasten ekin arren, ez ei da gauza alkar-izketa bateri eusteko.

\* \* \*

Ori danori buruan ondo «egosi» ondoren, onelako azken-iritzi onetara eltzen da: Euskerearena da errua, euskerea gatxa dalako.

Errezago egiteko, ze bide artu bear?

Emen ez dago guztiz oker eta onelako au diño: «Y el batua? Sí, supone una útil batasunización de la lengua, llevada a cabo, a mi juicio, con un criterio político y no didáctico».

\* \* \*

Azken-iritziz, euskerea zabaltzeko ikusten dauan bide bakarra ta egokiena, erreztutzea da (guk be bai), baiña... zelan? Ba... apurtuta! Aditza kenduta, indioak amerikarren pelikuletan erdera egiten daben antzera egin da.

Olakorik!

Orrenbeste jakituri erakusten dauan gizon batek, euskera ikasteko almenik ez ba'

- EUSKEREAK ERREZTU - BEARRA?
- EZ EKIEK ASKOK, IKASI DABE EUSKEREAK
- MIKEL ZARATE'REN BIDEAK

dauka... gureak egin dauala esan geinke!

\* \* \*

Baiña ez da ori gure iritzia, gurea beste au da: Gurasoak ez ziran abertzaleak eta berak ez dau egin, bear besteko alegiñik.

Zergaitik?

Berak jakingo dau zergaitik, baiña ain jakintsu ez diran asko ta asko ezagutzen doguz, euskereaganako maitetasunez eta aberri-miñez, gure izkuntza ikasi dabenen artean.

Ikasi nai ez ba'dogu, itzi dagiogun euskereari bere izadizko bideetan zear aurrera joaten, arri koxkor geiago ipiñi barik.

\* \* \*

Baiña guzti au idatzikeran beste idazlan bat datort begien aurrera: Nire aspaldiko adiskide dan Mikel Zarate'k oraintsu DEIA'n, bertan, egindakoa.

Mikel kezkatuta dago euskereagaz.

Euskera bizitik jo bear ei dogu batasunerantz eta alde orretatik beragaz batera nator.

Baiña berak dakian beste euskera jakin eta euskera «bizi» ori alde batera itzita... zergaitik asi jaku «asmatzailleak» egindako bideetatik?

\* \* \*

Niri bizkaiera ilteak be negargurea emongo leuskit, baiña Euskal Erria guztiz euskaldunduko ba'litz... tira!

Baiña euskalduntze ori odei baltz eta laino artean ikusten dogun bitartean, len aitatu dogun gizonaren aiñako «almena» ikusten ba'dogu gore euskaldun barri batzuen artean, euskera bizia landu ezik, arnasa emon ezik, zilbor-este guztiak ebagi ezkerro... Nora goaz?

Bizitik batasunerantz bai... baiña geurea indartuz; eta orretarako, Mikel, inguruko lurrun-emoillari jaramonik egin barik, zu lako idazleak bear ditu bizkaierak, gure euskera biziak... eta gero gerokoak.

ARENAZA'tar Josu'k



# EUSKERAZALEAK

## IKASTAROA

**EGIN DOGU:** Euskerazaleak eta Pazko-osteko aste bietarako, ikastaroa eratu eben, irakurleak jakin dabean lez. ZER onetan eta DEIA'n agertu ziran zertzeladak.

\* \* \*

**GERTAKIZUNAK:** Ikastaroak aurretiaz egin bearrekoa lanak izaten ditu. Lenengo, ikasteko bear diran gauzak. Ikasleentzat karpetak banatu ziran, barruen 24 ikaskizunen laburpenak zirala. Eskolapioai ikas-gelak ekastu geuntsezan eta esker-tzeko dan gogo onez eta duban emon euskuezan. Irakasleai sasoiz banatu jakezan gaiak... Zabal-kunde pizka bat be egin zan. Ez asko.

\* \* \*

**IRAKASLEAK:** —Lutelestia azaldu eban Legarreta' tar Josu'k, zeatz, sakon, garbi eta bare sei ikaskizunetan.

—Kondairea Estonba'tar Manuel'ek, zabal, atsegin, gozo ta bero, beste sei ikaskizunetan.

—Elertia edo literatura Onaindia'tar Santi'k, jakintsu, girotsu, errikoi eta bizi, beste sei ikaskizunetan.

—Idaz-zatien azterpena, au idazten dauan Olazar' tar Martin'ek, labur, eskola-antzera, izkuntzearen kondaira-bidez eta jakingarriak azalduz; sei ikaskizunetan onek be.

\* \* \*

**IKASLEAK:** Ogei ta bost ikasle izan ziran egunero, gitxi gora-bera: Andereñoak, ikasleak, euskalzaleak, zarrak eta gazteak...

Utsik egin barik eta egunero ordurako etorten ziran eta gogoz entzuten ebezan azalpen guztiak.

\* \* \*

**ESKOLAPIOAK:** Eskolapioai eta euren langilleai eskerrak emon bearrean gagoz ain arduraz eta biotz onez ikas-gelak itzi dauskuezelako.

\* \* \*

**GAIK:** Gai oneik, batzuk geiago beste batzuk gitxiago, eskolan ikasiak doguz, baiña zelako aldakuntzea! Euskalerriko gauzak España'tarren ikuspegitik ikusten genduzan oduan, eta al zanik gitxien, baiña emen geura ikuspegitik ikusi doguz, eta aldakuntzea oso-oso da. Gure «Geografía», gure «Historia», gure «Literatura» eta gure «izkuntza azterpenak» zer esan asko dauke gutzat eta sarritan ez doguz jakiten.

\* \* \*

**ALKARTASUNA:** Ikastaroetan sarritan jazoten dan lez, emen be jazo jaku gauza pozgarri bat: Ikasle ta irakasleen artean adiskidetasuna. Amaitu baiña len egin genduan apariak ori adiazko eban batez be.

\* \* \*

**URTEKO:** Olako ikastaroa urtero egiteko eskatu eben ikasleak eta gure aldetik ez dogu ezetzik esango.

Eta euskera ez dakienak, beste ikas-gela baten erderaz be egitea eskatuko ba'lebe, ori be egiteko dala esan genduan. Urrengo urtean ikusi bearko dogu.

\* \* \*

## ZER DA

—Etoikeria? Azpikeriz kalte egiteko edo lagunak saltzeko jokerea.

—Manua? Agindua. Bete begi Jaungoikoaren manua.

—Saiezka? Albotik.

—Billaukeria? Barruz arerio, agiriz lagun danaren eginkizuna.

—Akitua? Nekatua. Lanak ez dau akituten gizon ori.

—Adakia? Egur edo abar mea, ez lodi-lodia.

—Erretena? Uraren bidea, lur gainean edo soloan.

—Barna? Barrua.

—Nabaritsuak? Agiriak, azalekoak, errez ikustekoak.

—Kopuru? Moltzo, mordo, talde, pillo.

—Mintzatu? Berba egin.

—Kokatu? Ipiñi, jarri.

—Taiatu? Gauza bakotxa bere maillan jarri.

—Itxasariñak? Itxaspeko errekek.

